



Lihoaren arrastoa Nafarroa

Lihoaren ika-miken ostean, landareen izena zuritzen saiatu da testu honek. Mikel Belasko, toponimian aditu

Lihoa denon ahotan ibili da azken hilabeteotan. Sua Gaztelako hainbat aletegitan hasi zen, eta sugarrek Diputatuen Kongresua erre behar zutela iruditu bazitzaigun ere, azkenean PPko politikariek ez dute bere irudi ona belztua ikusi. Lihoaren izena, berriz, arras kaltetua atera da.

Goian, Joxe Ulibarrenak zuzentzen duen zentroan, Artetako museo etnografikoan, ikusgai daude lihoa lantzeko antzinako lanabesak. Eskuinean, Nafarroako Unibertsitateko zientzia museoan, Lekarotz eskolako bilduman, liho idortu bat aurki dezakegu. Irudian ageri da, lihoz eginiko jaka baten ondoan.

MIKEL SAIZ / JOXE LACALLE

Urrezko iragana

Ondorengo lerroetan horren berri eman nahi da, eta baita lihoari zor zaion gorazarra ere. Benetan handia izan baita gure arbasoen bizimoduan lihoak izan duen lekua, bai emandako zerbitzuarengatik eta baita ebatsi dien denborarengatik ere.

Lihoa ereitea ezinbestekoa zen ohiko ekonomia autarkiko batean. Bestelako baliabide ekonomikorik ez zuen gizarte batean arras zaila zen kanpotiko produktuak erostea eta nahitaez etsi behar zuten etxean egiten zenarekin. Beraz etxe batean etxeko barazki eta haragiak jan, eta etxeko artile eta lihoarekin janzen ziren.

Nafarroan zuen hedapena

Lihoaren ekoizpena handiagoa bide zen Mendialdean Erriberan baino, baina gehiago ala gutxiago Nafarroa osoan ereiten zen. Pascual Madozek, XIX. mendearen erdialdeko bere hiztegi geografikoan alpatu zuen hainbat herritako lihoaren ekoizpena eta kalitatea: Lanaibar, Ameskoa, Burunda, Olo, Artika, Petilla de Aragón, Leitza, Monteagudo... Arakilgoari berriz "lino de excelente calidad" (kalitate goreneko lihoa) iritzi zion.

Baina ez da beharrezkoa liburu zaharretan miaztea lihoaren berri izateko. Nafarroan ia ez dago lihoarekin lotua dagoen mendi, erreka edo leku izenik ez duen

herririk aurkitzea. Orokorki *lio*, *ligo*, eta *liño*z osatutako izenak dira, eta *linar* agertzen da euskaldunak ez diren leku izenetan.

Lantzeko modua

Lihoaren lana nekoso eta luzea zen, horregatik herri batzuetan *lioen penak* deituak izan ziren. Patziku Perurenak, "Leitzako Errege-erregiñak" liburu zoragarrian, Errutizko Lontxa Olanorengandik hartu zuen honako deskribapen hau: "Denbora baten alorren itten zen liñoa. Ontzen zenen, txukun txukun atera liño ori, ta yartzen zen zelaien xabal xabalen. Gero, leortzen zenen, azie kendu berrizko, ta eamatten zen liñaputzure. An eukitzen zen denbora luzen, liñazala usteldu arte. Urrena, putzutik atera, ta sekatzzen yartzen zen. Gero, sekatzzen zenen, itten zien maxo batzuk, eta arri zabal baten gañen yarritte,



GURE BEGIEN AURREAN KOLTZA ETA EKILOREA bezalako landare alferra eta ezdeusa ageri zaigu, diru-laguntzak jasotzeko (beti ere horretarako informazio egokia eta goztiarra lortu baldin bada) landatzen den horietako bat.

Baina lihoa ez da beti asmo horiekin erein. Gaur ia guziok ahaztu dugu lihoaren iragana, baina zahar askok gogoratuko dizute, han eta hemen, nolakoak ziren liho-lanak.